

# **HILETA**

**(Kepa Sojoren gidioia, Dreyerren ORDET filmaren amaieran oinarritua)**

**Laugarren bertsioa. 2015ko uztaila.**

### **1. Sek. Mendixka ingurua. Kanpoan./Egunez.**

Euskal Herriko barnealdeko eskualde baten ikuspegi orokorra. Pantailan ageriko zaigu testu bat eta denbora eta geografia kokatzeko zantzuak emango dizkigu.

EUSKAL HERRIKO TXOKOREN BATEAN, 1925

Beroki luze batez jantzitako gizon bat oinez ikusiko dugu zelai eta mendixka inguru batean (Larrabeitia). JOANES MARTIKORENA (30) da. Arropa zuria eskegita duten bi zutoinen parean pasatuko da. Eguna eguzkitsua bada ere, haize dezente dabil. JOANES mendixka batera igoko da eta Jesukristo Olibondoen Mendian balitz bezala agertuko da. Deklamatzen hasiko du predikua.

JOANES: Zoritxarrekoak, zuek! Hipokritak! Zu, zu eta zu (seinalatuz) Zoritxarrekoak zuek, zalantzaz beteak! Zoritxarrekoak zuek, nigan sinesten ez duzenok!! Neu naiz Kristo berpiztua, Zeruak eta Lurrak sortu zituen Jainkoak aginduta zuengana etorria. Benetan diotsuet. Azken Judizioaren eguna gertu dago. Jainkoak profeta moduan bidali nau, bere aurpegiaren aurrean. Zoritxarrekoa sinesten ez duena! Fededunek bakarrik izango baitute lekua Zeruetako Erreinuan... Amen!

Filmaren titulua: **HILETA**

Beltzera

### **2. Sek. Eskelaren intsertoa. Barruan/Egunez.**

Xehetasun planoan eskela soil bat ikusiko dugu, eta hona hemen leienda:

MADDI DOXANDABARATZ

Mikel Martikorenaren emaztea

1894ko urtarrilaren 24a

1925eko abuztuaren 3a

### **3. Sek. Martikorena etxearen gaubeila gela. Barruan/Egunez.**

Gelaren zuri baten erdian MADDI (31) gaztearen gaubeila dago kokaturik; hilkutxa batean datza, goitik behera zuriz jantzita, gelaren erdian. Atzerako travellingaren bidez beste bi pertsonaia deskubrituko ditugu: BEÑAT (65), Martikorena familiako patriarka eta hildakoaren aitagarreba, geldi-geldi hilkutxaren ondoan, eta ANDER (35), zendutakoaren koinatua, gelan ohorezko lekua duten bi zutargietako baten kandela pizten ari dela. Atzean dauden bi leihok, gortina zuriz estalita, edertasunez janzten dute aretoa. Hilkutxaren ondoan, bi aulki hilotzaren beila egiteko. BEÑAT eta ANDER eseriko dira aulkietan. Atea ireki eta MIKEL (40), hildakoaren senarra eta BEÑATEN seme zaharra, sartuko da gelara eta aitarekin hasiko da hizketan. Gela batera eta bestera

ibiliko du, aurreko irudiaren kontraplanoan. Paretako erlojua geldituta dagoela ikusiko dugu.

MIKEL: Den-denak etorriko dira, aita.

BEÑAT: Bai.

BEÑATEk marmarka erantzungo du, semeari begiratu ere egin gabe. MIKELEk berriz ere hitz egingo du.

MIKEL: Apaiza laster iritsiko da.

BEÑATEk berriro ere marmarka erantzungo du, ulertzeko modukoa ere ez den baiezkoa esateko.

BEÑAT: Bai.

Familiako patriarka aulkietako batean dago eserita eta erabat joanda dauka burua. MIKEL beste aulkira doa eta, hunkituta, bere anaia ANDERen eskua hartuko du. Mikel bera, hunkituta eta triste, negar artean arituko zaio emazteari.

MIKEL: Orain, MADDI, estalkia jarri behar dizugu.

ANDER (anaiak esan duena entzunda larritu egingo da): MIKEL! Aita!

BEÑATEk semeari erantzungo dio, Mikel gelan gora eta behera dabilen bitartean.

BEÑAT: MIKEL, utziok apaizari aurretik otoitz bat egiten.

MIKELEk, egoeragatik bere onetik aterata, aitari erantzungo dio.

MIKEL: Bai, agur bikaina izan behar du.

Herriko APAIZA (38) sartuko da gelara, sotana beltza jantzita. BEÑATEk hartuko du APAIZA atean eta hizketan hasiko dira.

APAIZA: Kaixo, BEÑAT... Hemen datza... Zeozertarako balio behar du...

BEÑAT (etsita, erantzun egingo dio): Bestela, ez zen gertatuko.

Herriko SENDAGILEA (45) ere iritsiko da; gelan sartu eta atzea itxiko du. SENDAGILEAk BEÑAT agurtuko du.

SENDAGILEA: Egun on, BEÑAT.

Medikua MIKELengana hurbilduko da eta hura kontsolatzen saiatuko da. MADDIren senarra APAIZA eseri den aulkiaren atzean dago.

SENDAGILEA: MIKEL, gogoratu mina ere ederra izan daitekeela.

MIKEL: Bai, mediku jauna, ederra guztiz garrantzitsua delako.

SENDAGILEAk beste aldera jo eta ANDERengana egingo du, doluminak ematera; eskua besterik ez dio emango, haren atzean jarri eta galdetu egingo dio.

SENDAGILEA: Berririk ez JOANESi buruz?

ANDER: Leku guztietan bilatu dugu. Entzun dugu Larrabeitia inguruan ikusi dutela prediku ematen, munduaren akaberaz eta hildakoen berpizkundeaz hizketan.

SENDAGILEA: Jasaten duen gaixotasun-mota dela eta, hobe genuke Elurretako gaixoetxean sartzea. Nahi baduzue, hitz egingo dut zuzendariarekin...

BEÑAT: Nire seme gaixoa, burutik zeharo jota, teologia jesuitetan ikastegatik. Eta desagertuta, MADDI gaixoa ezustean hil den honetan.

ANDER: Aita, aurkituko dugu JOANES hiletaren ostean. Orain garrantzitsuena MADDI ohoratzea da.

Panoramika planoaren beste alderantz; bertan MIKEL eta APAIZA daude. Azken hau senar alargunduari zuzenduko zaio.

APAIZA: Hitz batzuk esan nahi nituzke.

APAIZA MADDIren hilkutxaren atzean jarri eta bertaratutakoei hitz egingo die.

APAIZA: Heriotza betierekotasunaren atea da, eta, ate horretatik, hemen datzan neska gazte hau aurreratu egin zaie bere maiteei. Orain negar egiten dugu geure buruan eta sentitzen dugun galeran pentsatzen dugulako, ez baitago beregatik negar egiteko arrazoirik. Horrexegatik eskertu behar dituzue emakume gazte honek bukatu den bere bizitza argi eta zoragarriaz etorkizunerako utzi dizkizuen oroitzapen argi eta pozgarriak. Eta zuri, MIKEL MARTIKORENA, zuri esan nahi dizut, haren oroitzapenean bizitzea baduzu eta zuen seme-alabak hezi baditzakezu, hark ikustea baleuka benetan poztuko litzatekeen moduan, orduan, zuek biok, elkar maite zenuten zuek biok, elkar aurkitu eta bat egingo duzue berriro ere inoiz ez urruntzeko. Erreza dezagun Aita gurea isilpean. Amen.

MIKELek eskertu egingo dio APAIZARI haren jarduna.

MIKEL: Mila esker, apaiz jauna, hitz eder horiengatik.

APAIZA: Ez eskertu niri.

BEÑATEk eta ANDERek eskua emango diote abadeari, egin duen hitzaldi hunkigarria dela eta. Atetik PEIO IRURETA (68) sartuko da; MARTIKORENAtarren arerioa den familiako patriarka da. Ondoan bere alaba ANE (32) du, ANDER gazteak bere bizitza harekin lotu nahi du. ANDER, ordea, harritu egingo da hura iritsi dela ikusita.

BEÑAT: PEIO, nola ausartzen haiz hona etortzera. Eta zergatik ekarri duk ANE?

ANDER: Hemen ez duzu ezer egiten, PEIO. Hobe duzu joatea!

PEIO k eskua eskainiko dio BEÑATi.

PEIO: Barka ezazue traba egiten badizuet. BEÑAT MARTIKORENA, hire mina konpartitu nahi nikek, gure artean gorabehera handiak badaude ere.

BEÑAT: MADDIri zor diogun errespetuagatik egingo diat.

Agureek eskua emango diote elkarri eta PEIOk badu zerbait esateko BEÑATi eta ANDERi.

PEIO: BEÑAT, hilkutxa honen ondoan zerbait esan behar dizuet. Zuen denok jakin behar duzue, MADDI eraman baino lehen.

MIKEL: Berdin dio PEIO; gauza asko esan dira eta.

PEIO: Esan egingo diat, hala ere. MADDIk utziko duen lekua ez duk hutsa geratu behar. ANE, etorri.

ANE bertan egoteak ezinegon handia sortuko dio ANDERi, seko maiteminduta baitago harekin.

PEIO: Hemen duzue. Zuena da orain.

ANDER hunkitu egingo da eta hizketan egingo du.

ANDER: Jainkoak emango dizu saria, PEIO!

PEIO: Har ezazue maitasunez.

ANDER (gazteari maitasunez begiratuta): Gure eguzkia izango zara, ANE.

ANE: Eskerrik asko, ANDER.

ANDERek ANE bazter batera eramango du, aulki batean eseri eta burua makurtuko du, unearen tristurak eraginda. Bitartean, MIKELeK negar egingo du, zeharo jota. BEÑAT zaharrak, seme zaharra negarrez hasi dela ikusita, hizketan hasiko da.

BEÑAT: Oh, bedeinkatua izan dadila Jainkoa. Negar egin du azkenean!

MIKEL bere maitea barnean daukan hilkutzara hurbilduko da eta kontsolatzeko modurik gabe egingo du negar. BEÑAT hilkutzaren beste aldetik hurbilduko da eta bera ere hizketan hasiko da:

BEÑAT: Agur, MADDI. Eskerrik asko guztiagatik, guzti-guztia zelako ona. Ondoren ikusiko dugu elkar... Bai, MIKEL, gero arte bat besterik ez baita... Agur, MADDI, Jaungoikoak alaitu dezala zure arima.

Planoan GARBI (9) sartuko da, MADDIren eta MIKELen alabetako bat.

BEÑAT: Esan agur amari, maitea!

GARBI: Agur, ama!

BEÑAT (APAIZARI): Ez du ezer ulertzen, gazteegia da. Eta guk ere ez dugu ezer ulertzen, apaiz jauna.

APAIZA: Hala duk, BEÑAT.

ANDER ere planoan agertuko da eta agur esango dio bere koinatari.

ANDER: Agur, MADDI. Eta eskerrik asko.

BEÑATEk adieraziko dio seme gazteari hilkutzaren estalkia jartzeko garaia dela, MIKELen etsipenaren aurrean.

BEÑAT: ANDER, estalkia.

MIKEL: Ez iezadazue kendu. Ez gaitzazue urrundu!

BEÑAT: Tira, MIKEL, haren arima Jainkoarekin zegok. Ez zegok hemen. Ikusi duk.

MIKEL: Bere gorputza. Bere gorputza ere maite nuen.

BEÑAT: Kemena! Esaiok agur. Martikorena kastakoa haiz.

MIKEL: Agur, maitetxoa. Agur MADDI, kuttuna...

Denok harrituta geratuko dira ikusten dutenean JOANES gaubeilako gelan sartzen. Jertse lodi batez eta galtza batez jantzita, ez dauka batere antzik Martikorena familiaren luto jantziekin. BEÑAT harri eta zur dago semea bertan ikusita.

BEÑAT: JOANES!

JOANES: Bai, aita.

BEÑAT: Aita? Aita diok? Hire begiak lehengoak dituk, zentzua berreskuratu duk...

JOANES: Bai, zentzua berreskuratu dut.

JOANES hilkutxaren ondora hurbilduko da. BEÑAT bere ondoan. Gaztea hizketan hasiko da, inora begiratu gabe..

JOANES: Zuen arteko inork ez al du pentsatu Jainkoari eskatzea MADDI bueltan ekartzeko?

BEÑAT: ¡JOANES, etzak Jainkoaren izena iraindu!

JOANES: Ez, zuek iraintzen duzue Jainkoaren izena zeuen epelkeriarekin!

MIKEL negarrari ezin eutsi ari da hilkutxaren ondoan. JOANES hurbilduko zaio.

JOANES: Jainkoari norbaitek errezatu izan balio, hark entzun egingo zuen.

MIKEL (negar malkoka): Nola ausartzen zarete garrasi egitera nire emaztearen hilotzaren aurrean!

JOANES: MIKEL, anaia maitea. Fededunen artean, zergatik ez dago bakar bat sinetsi egiten duena?

JOANES berriro hurbilduko da MADDIren hilkutxaren ondoan.

JOANES: MADDI, usteldu egingo zara, garaiak ustelak direlako.... Orain, jar ezazue estalkia.

GARBI umetxoa osabarengana hurbildu eta hizketan egingo dio:

GARBI: Osaba, mugitu, azkar, azkar!

JOANES (neskatoari begira): Umeak, zeruetako erreinuaren gauzarik ederrena.... Egin ahal izango dudala uste duzu?

GARBI: Bai, osaba.

JOANES: Zure fedea handia da. Izan dadila zuk nahi duzun bezala... Begiratu amari. Nik Jesusen izena esaten dudanean, ama zutitu egingo da.

JOANESek MADDIri begiratu eta esango du:

JOANES: MADDI, hilda zauden hori...

APAIZA, ikusten ari denaren aurrean, sutan altxatuko da eta SENDAGILEAk, jakin-minez, gelditu egingo du.

APAIZA: Erotuta dago!

JOANESek berean jarraituko du.

JOANES: Eroen kontua al da bizitza bat salbatu nahi izatea?

MIKEL bere anaiarengana hurbilduk oda, negarrez, baina ia ez dauka indarririk eta atsekabetuta eseriko da..

MIKEL: JOANES.

JOANES (MIKELi): Izan konfiantza Jainkoarengan.

JOANESek, begirada ia galdua, GARBIren eskua hartu eta diskurtsoarekin jarraituko du.

JOANES: Jesukristo, posible bada, bueltatu ezazu bizitzara. Emadazu hitza, hitza... hildakoa bizi dadin. MADDI, Jainkoaren izenean, agindu egiten dizut, Zutitu zaitez!

JOANESen hitzen ostean, MADDI lotuta zeuzkan eskuak pixkanaka mugitzen hasiko da. BEÑAT eta PEIO harrituta geratuko dira. GARBIk irribarrea egingo du eta pozarren begiratuko dio osabari. MIKEL hilkutxara hurbildu eta berpiztutako emazteari hitz egingo dio.

MIKEL: MADDI! ... MADDI maitea!

BEÑAT eta PEIO harrituta zutitu eta elkarri begiratuko diote.

PEIO: Miraria! BEÑAT, bizirik zegok.

BEÑAT: Bai, berpiztu egin duk Jainkoari eskerrak.

MADDI pixkanaka hasiko da begiak irekitzen eta MIKELi begiratuko dio. Eskuak mugituko ditu. MIKEL hilkutxatik altxatu eta besarkatu egingo du. Une horretan MADDIren begiak ikusiko ditugu. Ez dira bizirik dagoen pertsona batenak, hildako bizi batenak baizik. MIKEL besarkatzerakoan MADDIk senarraren lepoan egingo du koska

bortizki eta inguruko guztiak harrিতa geratuko dira. MIKEL garrasika hasiko da MADDIk koska egiten jarraitzen duen bitartean.

Bertaratuko en erreakzioa oso bitxia da. Inork ez du ezer egingo ANEk, ikusten duen egoera latzaren aurrean, izututa, orroa egin arte. JOANESek irribarre moduko bat egingo du.

Hilkutxaren ondoan, MADDIk MIKEL hondakina balitz bezala jaurtiko du eta besteengana joko du, asmo txarrez; beste guztiak, ordea, atzerantz egingo dute, beldurrez, paretara. JOANES, besoak altxatuta, neskaren aurrean jarriko da; hildako bizia haren aurrean geratuko da; JOANES neskaren aurrean hasiko da deklamatzeko eta neska, harritzekoa bada ere, entzuten geratuko zaio.

JOANES: MADDI, berpiztu zaren hori, lasaitu zure sumina eta izan zaitez lehengoa! Obeditu Jainkoari eta errespetatu ezazu haren hitza!

MADDI, JOANESen aurrean gelditu, pixka bat lasaituko da eta bere jarrera oldarkorra baretu egingo du eta hizketan egiten utzi. “Koinatuaren” hitzak entzun bezain laster, jauzi egingo du haren kontra eta koska egingo dio hari ere.

#### **4. Sek. Martikorena etxearen kanpoaldea. Kanpoan/Egunez.**

Elipsi batek etxearen kanpoaldera eramango gaitu. ANE, ANDER, GARBI, APAIZA, SENDAGILEA, PEIO eta BEÑAT ihesi doaz ikusi berri duten ikuskizun latzaren aurrean. Urruneko plano batean ikusiko ditugu pertsonaiak etxetik ihesi eta kamerarantz hurbiltzen. ANE plano motzean geratuko da, ikusten ez dugun zerbaiti begira. Beste pertsonaia guztiak atera egingo dira planotik.

ANERen subjektiboan Martikorena familiaren baserria inguratzen dituzten zelaiak ikusiko ditugu. Hainbat eskalatan ikusiko ditugu hildako biziak neska gaztearengana hurbiltzen. Egoera izugarria da. Sekulakoa gertatu da, hildakoak berpiztu egin baitira. Dena da kaosa eta suntsipena. Paisaia idilikoa oso ilun eta gaizto bihurtuko da.

ANEk alboetara begiratuko du eta kezkatuta hasik oda oihuka, atzean geratu delako eta iheskiderik aurkituko ez duelako.

ANE: Ander! Aita!

Hildako bizi baten esku ustela eszenan agertuko da eta neska gaztea planotik desagertzea eragingo du, sekulako orroa botatzen duen bitartean.

Beltzera goaz eta hasiko gara entzuten Delirium Tremens taldearen “Kaixo” abestia, bizitzaren eta heriotzaren arteko gogoeta.

Amaiera

Kredituak